

Helburu didaktikoak	
1. Adierazpen moldeak eraldatu, funtzioei buruz hitzez zein grafikoki emandako deskribapenetatik abiatuz eta komunikazio-ekintzarako hizkuntza matematiko egokia baliatuz.	<p>1.1 Funtzioak adierazpen molde batetik beste batera aldatzea eta hitzez deskribatzea, terminologia eta sinbologia matematikoa egoki erabiliz.</p> <p>1.2 Aurrez emandako hainbat ezaugarri dituzten funtzioak sortzea eta grafikoki adieraztea.</p>
2. Funtzio koadratikoen adierazpen moldeak erlazionatu: hitzez deskribatuz, grafikoki irudikatuz eta adierazpen aljebraikoak baliatuz; euren ezaugarriak eta propietateak aintzat hartuz.	<p>2.1 Funtzio koadratikoak adierazpen molde batetik bestera aldatzea eta hitzez deskribatzea, terminologia eta sinbologia matematikoa erabiliz.</p> <p>2.2 Funtzio koadratikoei buruzko baieztapenak justifikatzea, haien propietateak eta ezaugarriak aintzat hartuz eta irudi estatiko zein dinamikoak baliatuz.</p>
3. Funtzio koadratikoarekin eta bigarren mailako ekuazioen ebazpenarekin erlazionatutako problemak ebazti.	<p>3.1 Bigarren mailako ekuazioak ebaztea, aljebraikoki zein grafikoki eta ekuazioaren parametroen arabera soluzio-kopurua zehaztea.</p> <p>3.2 Parabolek emandako informazioa interpretatuz, galdera zehatzei erantzutea eta funtzio koadratikoarekin eta bigarren mailako ekuazioekin erlazioak ezartzea.</p>
4. Elementu geometriko lauen eta espazialen ezaugarriak eta neurriari buruzko propietateak ziurtatu, irudi estatiko zein dinamikoak baliatuz eta zirkunferentziarekin zein hiperbolarekin erlazionatutako problemak ebazti.	<p>4.1 Zirkunferentziaren eta beste irudi lauen propietateak justifikatzea, paperean zein GeoGebra aplikazioaren bidez eta zirkunferentziaren propietateekin erlazioak ezartzea.</p> <p>4.2 Hiperbolaren propietateekin erlazionatutako problemak ebaztea.</p>